



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

«Gizarteak erabaki behar du torturatzaileari edo torturatuari sinesten dion»

Jose Schulman • Giza Eskubideen Aldeko Argentinako Ligako idazkaria

Torturaz berba egitera etorri da Euskal Herrira giza eskubideen aldeko ekintzaile argentinarra; garrantzi handia ematen dio Portu eta Sarasolari egindako torturen auzian Estrasburgoko Auzitegiak emandako epaiari: «Garaipen itzela da».

Gotzon Hermosilla Gernika

Euskal Herrira iritsi eta segituan Gernika (Bizkaia) ezagutu nahi izan du Jose Schulmanek. Ez da harritzekoa: berak dioen moduan, «zenbait genozidioren oinordekoa» da –aitaren familia naziek sarraskitu zuten, eta bera Jorge Rafael Videlaren diktaduraren errepresioa nozitutakoa da– eta genozidio horiek zerikusirik handia dute Gernikarekin, «hura

ere nazismoaren eta frankismoaren biktima izan zelako».

Rosarion (Argentinan) jaio zen Schulman –«Che Guevara eta Messi jaio ziren probintzian», zehazten duenez–, 1952an. Giza Eskubideen Aldeko Argentinako Ligako idazkari nazionala da. Ilbilbide luzea egin du giza eskubideen alde, eta egunotan Euskal Herrian izan da, torturaren kontrako zenbait ekitalditan parte hartzeko; tortura auzi bat dela eta, Estras-

burgoko Auzitegiak Espainiari berriro ere kargu hartu dion astean, hain justu.

Zuk idatzitakoa da: tortura krimena da, eta, hala ere, tortura badago.

Argentinako nazioaren defendatzaile nagusi [arartekoaren modukoa da] Stella Marisek esan zuen hori, galdetu zuen zergatik gertatzen den hori, eta erantzun ere egin zuen: poliziek uste dutelako tortura eraginkorra

dela, epaileek beste alde batera begiratzen dutelako, eta gizarteak ez diolako torturatuari sinesten. Neure egiten ditut hitz horiek.

Zer da tortura?

Kapitalismoaren osagai behinetako bat; torturarik gabe ez legoke kapitalismorik. Amerikan, torturaren berri izan genuen Espainiako Erresumak ekarrita. Inkisizioa garrantzi handiko erakundea izan zen gurean.

Eta XX. mendeko diktadurek eutsi egin zioten tradizio horri.

1976an, [Argentinako] armadaren komando batek hamabost urteko ume bat hil zuen, ipurtzuloran makila sartuta erraiak lehertu zizkioten arte. *Paldoztatzea* du izena teknika horrek, eta, historialarien arabera, berrehun urte lehenago erabili zen azkenengo aldiz. 2010ean egin zuten epaiketa, eta akusatua, Santiago Omar Riveros jeneralak, irudiak ikusi zituenean, esan zuen hor ez zuela tortura zantzurik ikusten. Orduantxe ulertu nuen nik gaur egungo boterearen eta inkisizioaren arteko harremana. Inkisizioak formateatu egin zuen Ameriketako klase menperatzaileen mentalitatea, eta, orain, tortura eguneroko tresna bat balitz bezala ikusten dute.

Zu ere bi aldiz atxilotu zintuzten, 1976ko urrian eta 1977ko azaroan, eta diktaduraren kartzeletan ohikoa zen tratua pairatu zenuen.

Hala da. Adibidez, gibelean kolpe asko eman zizkidaten, eta medikuak esan zidan gibela kolapsatzeko arrisku biziaren egon nintzela.

Eta, hala ere, inoiz esan duzu kosta egin zitzaizula zeure burua torturatutzat jotzea.

Hala da, eta hainbat arrazoiengatik. Gure aitona gerrillan borrokatu zen nazien kontra II. Mundu Gerran, eta aita komunistaren zena; beraz, gure etxean oso argi egon da beti militante izateak torturaren arriskua dakarrela. Beste aldetik, gure belaunaldia sarraskitua izan zen, eta bizirik iraun genuenoi iruditzen zaigu pairatutako guztia huskeria dela hil dituztenekin alderatuta.

Nola kontatu daiteke torturaren errealtatea?

Hannah Arendtekek esan zuen besteak irudika dezakeena baino ezin dela kontatu, eta, hortaz, muturreko oinazea, tortura, ezin direla kontatu. Bat nator horrek: nik kontatu ahal dizut *picana* nola dabilen, baina *picana* barrabiletan jartzea zer den ezin dizut azaldu. Eta gizarte batek ez badu torturatuen egia entzun nahi, ez du entzungo, egia hori transmititzea oso zaila delako. Ez dago torturaren argazkirik, ez dago torturaren aktarik, tortura, definizioz, denik eta jarduerarik gordeena baita. Gizarteak erabaki behar du torturatuari edo torturatzaileari sinesten ote dion.

Tortura preskribatu ezin duen delitua dela esan ohi da. Zergatik? Gizateriari egindako delitua delako. Delitu guztiak preskribatu dezakete, gizarteak horren inguru-

ko interesa galtzen duelako. Nik grabagailu hau lapurtzen badi-zut, delitu bat egiten dut, eta gizarteak badu eskubidea niri kargu hartzeko. Baina, zenbat denboraz? Bi, hiru, lau urteren ostean grabagailuak balioa galtzen du, seguru asko ibili ere ez da ibiliko, eta gizarteak ez du hura berreskuratzeko interesik. Horregatik, arrazoikoa den denbora tarte bat igaro ostean, delituak preskribatzen du. Baina tortura ez. Grabagailua lapurtzen badizut, zeuri lapurtzen dizut; torturatzen bazait, gizateria osoa torturatzen dut. Ezin du preskribatu, eta ezin da amnistiatu edo indultatu.

Orain Euskal Herrira etorri zara,



Tortura kapitalismoaren osagai behinenetako bat da; torturari gabe ez legoke kapitalismorik»

«Tortura bidez lortutako frogak ezin dira aintzat hartu; hori edozeinek uler dezake, Espainiako epaileek ere bai»

eta tortura hizpide izango duten hainbat ekitalditan parte hartuko duzu.

Niretzat Euskal Herrian oina jartzeara historiaren zati garrantzitsua batean oina jartzeara da, politika genoziden eta erresistentziaren ikur delako. Niretzat Euskal Herria beti izan da oso erreferentzia garrantzitsua.

Asteon jakin dugu Estrasburgoko Auzitegiak Espainia zigortu duela, Mattin Sarasolari eta Igor Porturi «tratu ankerra» emateagatik. Zuk zer iritzi diozu epaia-ri?

Nik garrantzi handia ematen diot epai horri. Ez dut sinesten kasualitateetan, ezta epaileen autonomian ere. Euskal Herriko mugimenduaren garaipen itzela da.

Espainiako Gobernuak nabarmendu du epaian tratu anker hori ez dutela tortura gisa definitu. Terminoen inguruko eztabaida hutsal baten aurrean gaude? Edo hitzen erabilera harago doa?

Polemika hori pellokeria galanta da. Tortura ez da existitzen, kontzeptu hutsa delako; kolpeak dira benetakoak. Norbait jotzen badute, horri tortura deitu ahal dugu, edo ez, baina auzitegi batek kolpe horiek frogatuztat ematen badi-tu, horri nola deitzen diogun gutxienezkoa da. Benetan harriturik nauka kontu horrek; ni orain arte ohituta egon naiz agintariei entzutera ez dutela jipoitu, baina ji-

poitu dutela onartu eta hori tortura ez dela esan? Gainditu egiten rau horrek.

Nolako ondorioak izan ditzake Estrasburgoko Auzitegiaren epaiak?

Estrasburgoko Auzitegiak esan du bi pertsona hauek [Portu eta Sarasola] gaizkile terroristak izan arren haien kontakizuna egiazkoa dela, eta horregatik zigortzen dute Espainiako Estatuak. Nik uste dut ondorio juridikoa alderantzizkoa dela: frogatuta baldin bada go torturatuak izan zirela, orduan gaizkileak ote diren jarri behar da zalantzan. Zuzenbide liberalaren oinarria da hori: inor ez da errudun kontrako frogatu

arte, errugabetasun presuntzioa suntsitzeko frogargiak behar direla, eta torturaren ondorioz lorturiko frogak ezin direla aintzat hartu. Hain kontu oinarritzak edozeinek uler dezake, Espainiako epaile batek ere bai.

Lehen esan duzu Amerikan Espainiako Erresumak eramanda izan zutela torturaren berri. Espainia zorretan al dago Ameriketako herriekin?

Espainiako Estatuak hil egin ginen 1492tik aurrera. Espainiako Estatuak faxismoak Amerikako faxismoa elikatu zuen. Espainiako Estatuak neoliberalismoaz baliatu zen, eta, esaterako, Telefonicak irabazitako hamar eurotik zortzi argentinaren lanari kendutakoak ziren. Beraz, ez daitezela harritu haien kontra jotzen badugu, eta frankismoaren krimenak kerreilan haiek espetxeratzeko saiatzen bagara.

«Argentinan badakigu memoriaren bataila egunero jokatzeko dela»

G.H.

Schulmanek dioenez, Argentinan giza eskubideen egoerak atzerakada handia egin du Mauricio Macri presidentea boterera iritsi zenetik, 2015eko abenduaren 10ean. Santiago Maldonadoren desagertzea –haren gorpua urriaren 17an agertu zen– giza eskubideen aldeko elkarrekin indar armatuei egotzen diete hilketa kasurik ezagunena, baina ez bakarra.

Argentinan lortu zenuten justizia egitea diktaduraren krimenen auzian?

Guk inoiz amestu baino justizia gehiago egin zen, ez genuelako uste inoiz justiziarik egingo zenik batere. Justizia eta memoria beti dira prozesu historiko baten emaitza, non oso korronte sakonek elkarrekin talka egiten duten. 1976tik aurrera, egiaren aldeko oso borroka latza egon zen, eta borroka horrek izan zuen fruiturik: torturatuen hitza sinestea, alegia.

Garrantzitsua izan zen hori?

Bai, garaipen handia izan zen, guk garai hartan, 1985 eta 1986an, kontrako pentsatzen genuelako, hau da, galdu egin genuela, orduan indargabetu zirelako junta militarren kontrako auzibideak. Hala ere, Auzitegi Gorenak bi

kontu oso argi utzi zituen, gerora garrantzi handia izango zutenak: sarraski planifikatu bat egon zela, eta sarraski hori frogatzeko, torturatuen hitza ezinbestekoa zela. Horri esker, hurrengo hamarkadan pausoak eman genituen: 600 epai inguru lortu ziren, 12.000 bat biktimari zegozkionak, eta 1.200 errudun zigortu zituzten. Eta zigor handiekin gainera, nahiz eta gaur egun haiekin asko espetxekaldia etxean betetzen ari diren edo baldintzapean aske dauden.

Zertan da gaur egun giza eskubideen egoera Argentinan?

Latinoamerika orokorrean, eta Argentina bereziki, beste kolonizazio prozesu bat nozitzen ari da orain. Argentinan polizia estatu bat ezarri nahian dabilta. Egoera bitxia da, Macri botoa ematen dion Argentina horrek aldi berean oso gogor gaitzesten baitu estatu terrorismoa, eta memoriaren alde dago.

Mauricio Macri presidente izendatu ondoren egoera okerragoa da?

Estatu terrorismoaren jarraitutasun historikoa ordezkatzen du Macri. Erakusten du klase bat noraino dagoen prest AEBetako inperialismoaren aurrean mardurtzeko: beren interesen kontra joateraino, hain zuzen ere. Adibidez, limoien industria oso garran-

tzitsua da Argentinan, limoi gehien saltzen duen hirugarren herrialdea gara, eta AEBek limoi asko erosten zizkieten Argentinari, baina orain AEBek erabaki dute ez diotela Argentinari limoi gehiago erosiko, eta men egin diote horri.

Preso politikorik al dago Argentinan?

Orain 21 preso politikoa daude, torturak daude, eta gutxienez hiru burkide hil egin dituzte. Guk zigor auzibideak hasi ditugu Macriren kontra, baina segitzen dugu pentsatzen bataila nagusia dela gizarteak nori sinesten dion. Torturatuak edo torturatuari sinesteak segitzen du bataila nagusia izaten. Orain, estatu kolpearen urteurrena prestatzen ari gara [1976ko martxoaren 24an izan zen] eta, iaz bezala, milaka lagun atara nahi ditugu kalera. Badakigu memoriaren bataila egunero jokatzeko dela eta, Walter Benjaminek zioen moduan, gaitzeten ez bagara gure hildakoak ere aterako direla galtzaille.

Hondarribiko Udala

ORDAINKETARAKO IRAGARKIA

2018. urteko IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ERROLDA.

2018. urteko TAXIEN ERROLDA.

Ordainketarako epea: Otsailaren 1tik apirilaren 9ra, biak bane.

Sarrera modua: Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean zergadunek adierazitako kontuetan kargatuko dira.

Helbideratu gabeko ordainagiriak, ohiko posta bidez bidaltzeko, zergadunek adierazitako zerga-helbideetara.

Ordaintzeko tokia:

a) Ordainketa-agiriaren zerrendatutako banketxeetan, b) <<www.hondarribia.eus>> Udalaren web orriaren bitartez (on-line ordaintzeko).

c) Kutxazain automatikoen bitartez, zerbitzu hau eskaintzen duten erakundeetan.

Martxoaren 1tik aurrera oharrik jaso ez baduzu, bikoizkia eskatu behar duzu Udalaren Zergabilketan, jendea hartzeko orduetan.

Ohararazi nahi dugu borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko zorraren gaineko betearazteko aldia hasiko dela, eta ondorioz gaingargual, berandutza-interesak eta, kasuan kasu, izan daitezkeen kostuak ordaindu beharko direla.

HONDARRIBIAN, 2018ko urtarrilaren 25ean ALKATEA Txomin Sagarzu Ancisar

Campo & Ochandiano Selección

BilbaoMusika

Bilbao Musika tokiko erakunde autonomoak langile hau behar du:

Administrazio Kudeaketako teknikaria

Kudeaketa Zuzendaritzaren menpe lan egingez, esleitzen zaizkion arlo administrazio kudeaketako (giza baliabideak, aurrekontu kontrola, administrazio orokorra) eginkizun guztiaren lagunduko du, erakundearentzat markatutako helburuak lortzearren.

Zer eskatzen den:

- Unibertsitateko titulua; gutxienez Enpresa Zientzietako diploma, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzakoa, edo gradu balioidea.
- Gutxienez bi urteko esperientzia, antzeko profileko lanpostuan.
- Euskararen 3. hizkuntza eskakizuneko titulu ofiziala edo balioidea, 297/2010 Dekretuan eta 47/2012 Dekretuan zehaztutakoari jarraituz.

Aintzat hartuko ditugu:

- Ofimatika tresnen eta informazioko teknologien ezaguerak.
- Langileria kudeaketako eta laneko segurtasun eta higieneko ezaguerak.
- Administrazio publikoan edo harentzat lan egingez hartutako ezaguerak edota esperientzia.
- Ingeles ez jakitea.

Eskaintzen dugu: aldi baterako lan kontratua, txanda kontratua egitetik eratorria. Diru ordainsaria lehiakorria izango da, eta bat etorriko da lanpostuaren mailarekin eta ardurarekin. Hautagaitzat aurkezteko epea 2018ko otsailaren 28an amaituko da.

Bidali curriculumak, **5.190 erreferentzia** adierazita, webgunearen bidez:

www.campo-ochandiano.com

Datu Pertsonalak Babesteko Legeari (15/1999 Legea, 1999ko abenduaren 13koa) jarraituz tratatuko dugu jasotzen dugun informazioa.